

CONXITA



Cor de panxa Tripezko bihotza (Xavier Grimau)

Tripeekin bihotz bat egin dut, bizi irauteko eta

pairatu beharrekoak pairatzen segitzeko balioko zaidana.
Tripeekin bihotz bat egin dut bizi irauteko balioko zaidana,
eta tripez egindako nere bihotz hunek martxatuko duela espero dut.

Barnekiz egindako bihotz bat da, hertze haundiz eta ttikiz tripa puskez eta estomakako erraietaz.
Guziz sabelez egindako bihotz bat da.

Ikusiko duzu dena ongi ganen dela zeren eta bihotzeko gauzetarako;
hautsitako, galdutako, mendekatutako edo nihoiz amenstutako amodietarako;
sekulan betetako desioetarako, eta orokorki, bizitzarako, behar dena, estomaka izatea da.
Nerekin etorri nahi al duzu nere bihotza dastatzerat?

Àngel Aingerua (Helena Cases)

Atzo aingeru bat bazen xokoan, gaur ez da.
Eta bere lekuan aski orratz bitxiak atxeman ditut. Gaur ez da.

Marra xuria segitzen dut, igarobidean naiz,
mutu batek ahozkatzen da: ez zaitela gan, ez zaitela gan!

Feriako barbeapapen usain azkarrak irauten du. Gaur ez da.
Ezantzen usain azkarrak irauten du eta errailean sei bikoitzaren fitxa da.

L'home que diu les paraules Hitzak erraten dituen gizona (Helena Cases)

Hitzak erraten dituen gizonak ahapeka beharritat erran zautan, ahapeka, zirrikilotea bezala,
norbaitek olerki liburua zikindua ziola.

Lohidurak eta lohidurak bertsotan, marra oliotsuak eta biziak.
Hitzak erraten dituen gizona trixte zen gonbidatua ez zutelakotz.

Metro alderat itzuli da, zombait ero sahiesten ahalegintzen da, eroen alderat itzultzen da, konpreintzen ez dutela erraten diote beraiek.
Metro alderat itzuli da, zombait ero sahiesten ahalegintzen da, eroen alderat itzultzen da, beraien urratsetan ezagutzen du bere burua.

Hitzak erraten dituen gizonak berriz irakurri zituen goroldio usaina zuten olerkiak, ezteietako zarata, ukitzen ahal zinituen.

Santa Rita, santa Rita (Xavier Grimau)

Santa Rita, santa Rita, hunek betikotz iraun dezala egizu, dena mahats parra bezala bete dadila, erleen zum zuma.

Dantza hunek dizdira egin dezala egizu, orkestaren ipurtargiak, baserreken zirimolak eta enbatak kai-muturrean.

Etzazula nere begirada sahiestu, betazaleetan uda daramat, baldosetan koloreak ditut, burbuil purpurinak nahi ditut.

Sabelaren barnean baratze bat badut, tatuaiak, fruitu gorria. Urrunduko nauzkiten hedeak emaidazkizu, itzulipurdi izigarria. Santa Rita, santa Rita, emaidazkizu baratzuriak eta emaidazu zerua, emaidazkizu saldak egunero, kontzazu orma urrunduta.

Eta ostoaren ukimena haritzak eta arteak mendekuz bezala zauritu baino lehen.

"Nere perfilak arrunt ezberdinak dire", dio mendiak.
Oinkatzen dituzten oinen araberan, lautadaren araberan.
Zuk konpreintzen nauzu, zatoz nereganat besarkadarat erraten dautzularik,
eta lur tonak mugiarazten ditut zuri leze bat egiteko.

Dolor Mina (Helena Cases)

Haur ttiki batek bezala,
nere arreta behar duzu.
Jende guzia ahalegintzen da zuretako eta zuk muxinkeriez erantzuten diezu,
hori egia da.

Zuk denbora ematen dautazu eta kentzen segunduz segundu, ez dut bakar bat ere gaitzen.

Ez zaitut senditu nahi. Zoazi!
Mementu bakotxa azpimarratzen dautazu eta hola ez dugu sekulan finituko.

Haur ttiki batek bezala kadiran iltzatuak gaitutzu, barneko alderat hatsa hartuz, kanpoko alderat begiratu gabe. Irudi finkoa, zu baizik ez dugu ikusten.

Zuk denbora eman eta kentzen dautazu.
Zure ikusleak, soilik zureak.

Tot i res Dena eta fitsik (Helena Cases)

Herri haundikoa banintz ehunari buruz mintzatuko nitzen,
bainan hirikoa naiz eta han dena eta fitsik da.

Andoni deuna karrika, zilarrezko dendak,
zure amensetako oinetakoak, han dena eta fitsik da.

Amaren etxean ttikia izatearen lurrina,
haragi gordina bezalako maitasuna, hura dena eta fitsik zen.

Hazi onak buztantzen dire, hazitegi ttikia landatzen dugu,
beti ureztatzearen esklabu, hori dena eta fitsik da.

Oliba beltzak jaten ditugu, xoratu hoietakoak,
eta hizketaldia egiten goazi, eta hori dena eta gehiago da.

Kontent heldu zara nere ikusterat, gero erraten dautazu "Dena".
Egun batez norabidez aldatzen duzu, eta hori alukeri bat da.

Abordatge Abordaia (Núria Piferrer)

Etzazula erran ez nauzula ikusi bihotza eskuan erematen.
Odola eri artetik erortzen zitzaian, ez nuen gelditzen ahal.

Etzazula erran ez duzula aditu zure atean joka aritu naizela.
Ukabila oihu bat bezala, atea, zura hilotza.

Etzazula erran ez duzula irakurri nere mezueta bat bederen,
tindak eta guzti saldu nau, abordaia uzten dut.

Tristor total Izigarriko tristura (Janot Vila i Helena Cases)

Bonbil bat bete dut gaur nigar egin dutanarekin.

Zure atarian utzi dut hau zioen mezu batekin:

"nere tristura izigarria da".

Emazteki bat atxeman dut bidon bat karraiatzen.
Hartan gaxte zeneko amodio gaitz bat eremaki zuen,
eta bestarat gaki zen.
Bere trixtura.

Orai hamar mila bonbil badire plazan eta hiribidean.
Denak gohiti eta behiti ibilki gara
aspaldiko maitasun batzuren mixeriez kargaturik.
Gure trixtura.

Quan t'adormis Loa hartuko duzularik (Helena Cases)

Hari luze bat lotuko dautzut,
eta hola, galduko zarelarik,
hura segituz eta segituz,
berri atxemanen zaitut.

Mataza urratuko dut
eta ondarrean atxematen bazaitut,
eta ikusten bazaitut, bainan urrundik ikusten,
urrun zara, urrun zara artilezko hari luzearekin.

Mataza urratuko dut
eta ondarrean atxematen bazaitut
eta ikusten bazaitut, bainan urrundik ikusten,
laxatuko dut eta trikota bat eginen dut.

Mal de cap Buruko mina (Helena Cases)

Nere etxean ditugun urtarokak
ez dire uda, udazkena, negua edo udaberria,
zefalea eta buruko minen artean pasatzen den denbora baino.
Arriskua xoko guzietan baita,
kasu jaten duzunarekin,
ura aunitz edan eta lasaitu zaitetz,
migraña bat beti erasotzeaz izaiten ahal da.

Zoin den trixtea buruko minez izaita!
Zertaz harrapatzen zaitu? Norek daki!
Badakigu jendeak erranen daukuna:
gelokatala edo neobrufena.

Iboprufen o paracetamol.
Zure aholkua lagungarri izaiten ahal da aski,
Buruko mina balin baduzu, ongi etorri kluberat,
Izigarri maite dugu gaiaz mintzatzea.
Iboprufena edo paracetamola.